

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Soroa Berrotaran

*Usurbil,
Gipuzkoa
(1932-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaio zen, Kontxa inguruan, Izaburu Berri etxean. Ama Hondarribikoa zuen, aita oiartzuarra. Bost urterekin Usurbilera joan ziren bizitzera, eliza ondora. Hamar senide ziren. Anaietako bat maisua zen, eta hark erakutsi zion eskola umetan Joxe Mariri; gero, Donostian ikasi zuen batxilergoa, marianistetan. Aitak txofertzan egiten zuen lana, eta gero sagardo lantegia ere jarri zuen: Illarramendi. 18 urterekin negozioaren kargu egitea egokitu zitzaion Joxe Mariri. 1964an Eva sortu zuen, sagardo apartsua eta muztioa egiteko lantegia. Langile gutxiarekin hasi arren, erretiroa hartu zuenean 50 ziren. Igeldon bizi da azken 40tik gora urtean. Ezkondu, eta sei seme-alaba izan zituen. Hamar aldiz egin du Donejakue bidea; erromesei argibideak eta ura eskaintzen dizkie. Zazpi hizkuntzatan hitz egiteko gai da. Zahar etxeetara ere joaten da, gitarra jo eta abestera. 70eko hamarkadan "Joxe Mari eta Mikel" taldekoa zen; herriz herri ibiltzen ziren kantuan.

Zintak

USU-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-26
- **Iraupena:** 104 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Abizenaren jatorria

- **Erref:** USU-002/002
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bere burua aurkezten du: izena eta abizenak. Bere abizena nondik datorren azaltzen du.</p>

2. Umetako denbora-pasa: animaliak

- **Erref:** USU-002/004
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

5 urte zituela, Usurbilera joan ziren bizitzera. Pozik bizi izan da Usurbilen. Txoriak harrapatzen eta oiloak lapurtzen ibiltzen ziren umetan. Gerra garaian, katu arrak harrapatu eta jan egiten zituzten.

Transkripzioa

-Zu oso txikia ziñala Usurbillera joann ziñaten bizitzera.

-Bai. Gu jun giñan, nik bost urte izango nittun Usurbillea jun nitzanian. Ta han bizittu giñan. Ba, herri politta Usurbil. Paketsua, danak ezagunak. Ta betiko gazte-bizitza, gure tiragomak eta. Harriyik onenak zenek zittun eta. Denek..., gehiyena botatzen zittun txorik eta. Hola ibiltzen giñan, kabik harrapatu ta. Oilluak lapurtu-ta jateko-ta.

-Bai, e, hainbeste bai?

-Bai, bai. Bat artista bagendun gaiñea. Harrapatzen zittun aidian eta dak!, hola lepotik heltzen ziyen eta ez zuen haek kikik'e itten, iñor ez zan enteatzen. Eta geo gerra garaiyan Usurbillen katuak, arrak, emiak'e batzun batzuk, baiño arrak danak jan genittun, aleik ez zan geatu. Emakume bat gendun gaiñea, este, Orbeldeikua, hoge durogatikan edo kazuela prepaatzen ziguna. Hari ematen genizkian. Harrek preparatzen zittun kato danak.

3. Eskolan eta hizkuntzetan fina

- **Erref:** USU-002/005
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Usurbilen kaleko etxean bizi zen eta eskolara joatean anaia izan zuen irakasle. Batxilerra marianistetan egin zuen: hasieran gogorra egin zitzaion gaztelaniaz ez baitzekien ondo, baina gerora oso nota onak atera zituen. Hizkuntzak ikasteko zaletasuna izan du beti. Marianistek eta jesuitek fama ona zeukaten hezkuntzako gaietan.

4. Bazkalostean ezkutuan ikasten

- **Erref:** USU-002/007
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:05:56. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Marianistak gogorak ziren, diziplina jartzen zuten. Joxe Mari ikasle onenen artean egon zen hirugarren urtetik aurrera. Bazkalostean ezkutuan ikasten zuen, galarazita baitzegoen ordu horretan ikastea.

5. Esku-pilotan aritzeko odola atera behar

- **Erref:** USU-002/008
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Ikasi eta kirola egiten zuten batera. Hainbat kirolean izan zen txapelduna. Pilotan ibili aurretik, eskua hartarako prestatzen zuten: ebakiak egiten zituzten odola ateratzeko.</p>

Transkripzioa

-Orduan ikasi eta kirola ere egiten zenuten batera han.

-Bai, bai. Ni nitzan "campeón de lanzamiento de peso" eta, ze gehiyo?, a bai, pelotan. Urtero kanpeoia nitzan. Gue klasian, e. Hua klaseka izaten zan ba.

-Pelotan eta...

-Eskuak pentsa ezazu. Gu pelotan itten gendun. Aurrena eskuak berotu.

Geo baten bat karga haundiya zunak zanpatu, eta geo Gileta batekin (Gilette bizarra kentzekoak) ebaki itten genittun odola atetzeko. Bai, bestela itten zan "clavo" deitzen zitzaiona. Hor tartian odola zera itten zan eta oso txarra zan, mingarriya. Ta hoi itteko Giletakin ebaki ttiki bat eiñ, odola atea ta segi pelotan. Ja-ja, animalik bezela, igual-igual.

6. Berorika noiz eta norekin

- **Erref:** USU-002/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Periko "Markesanekoari" buruzko anekdota kontatzen du. Berorika, zuka eta hika noiz erabiltzen zuten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Eta Usurbillen anekdota ona bazan. Periko Markesenekua deitzen geniyon guk, markesa bizi zan ba eta oso mutil jatorra. Oain kargua kulturako kargua izan du Alavako diputaziyuan edo; kargu ona izan du ta. Hoi egun batian, don Francisko zan apaizetako bat, ta atzenengo meza eman du ta kanpoa zihola argik piztuk oaindik eta Periko han errezatzen. Bakarrik elizan, beste danak alde egiñak eta. Ateatzekuan esan emen zion: "Periko, geo argik itzalduko al dittuk" eta: "Bai jauna, bai, jua hai beorri lasai" (barreak). "Bai-bai, jua hai beorri lasai". Horrekin parre earrak itten genittun.

-Apaizari orduan berorrika.

-Bai ba. Eta "jun hai".

-Apaizari berorrika eta medikuari ere bai.

-Bai, bai, "beorri". Eta aiton-amonei eta?

-Bai, bai. "Zu" ezta pentsatu're. Ezta pentsatu're aitta ta amai're.

-Aitta eta amari ere ez?

-Ez, ez.

-Eta "zu" nori?

-Zu daneiri. Hi oso gutxiri, anaieri eta; oso-osu laguna bihar zun izan hi esateko. Beste daneiri zu. Gu hola ohittu giñan.

-Amai ta "berorri".

-Bai. Errespetua dana, oso-osua.

7. Uholdeekin negozioa egiten

- **Erref:** USU-002/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Umetan ez zuten izaten dirurik baloia erosteko. Uholdeak noiz izango zain egoten ziren, Tolosa aldetik ibaiko urak ekartzen zituen ontziak txatarra moduan saldu eta diru harekin baloia erosten baitzuten. Behin urrezko hortza

topatu zuen eta hura ere saldu egin zuen. Uholdeak ia urtero izaten ziren, eta urak ekartzen zuen guztia aprobetxatzen zuten. Inguru batzuetan estutasunak pasatzen zituzten uholdeak zirenean. "El hombre de hierrori" buruzko anekdota kontatzen du.

8. Umetan kaniketan eta txoriak harrapatzen

- **Erref:** USU-002/013
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna

Laburpena:

Umetan kaniketan jolasten ziren eta berak saldu egiten zituen. Tiragomarekin mendira txoriak harrapatuzera joatea gustatzen zitzairen. Txori mota bakoitzarekin nola jokatzeko zuten azaltzen du. Harrapatutako txoriak jan egiten zituzten, gerra ostean gosea baitzegoen. Batzuek abesten zuten txoriak harrapatu eta saldu egiten zituzten.

9. Ibaian arrantza egiteko teknikak eta tresnak

- **Erref:** USU-002/014
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ibaian arrantzan ibiltzen ziren. Gerra garaian inguruko mendi batean borroka latza egon zen; gerra amaitutakoan, Joxe Mari eta lagunak hara joaten ziren arrantzarako ezpata eta tresna bila. Arrain mota bakoitza nola harrapatzen zuten eta zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Arrantzarako tresna gehienak beraiek sortzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta geo erriyuan harrapatu arrantzan, bueno, bueno, bueno! Hor gerra garaiyeen Saldatxur edo deitzen zan mendi bat, hor jende asko hil zan, zeatikan hortik sartu zian naparrak eta Donostiko jendia zeonak, republikano jendiak eta hoik ta naparrak bestetik eta hor zea borroka haundiya izandu zan eta jende asko hil zan. Hor geldittu ezpatak eta puñalak eta hoitakuak hortik ekartzen genittun guk ordun. Eta ezpata haikin geo erriyuan, benga!, arraiyak harrapatzen.

-Bai?

-Bai, bai. Ollakuak eta; Ollakua. Ollakua zan hola pasatzen zan, baiño seiñalia uzten zunian metro bat aurrea bota bihar zan golpia, bestela ez zendun harrapatzen. Eta geo zeak'e bai, este, aingira haundik, "congrios". Galantak, honbestaiñokuak. Bai, arrantza asko itten gendun. Ta amorraiya eskukin asko. Amorraitan ibiltzen giñan, eskukin, e. Nik afiziyo haundia nun.

-Eta aingira haundiya nola?

-Hoik batez ere zea, papelerak botatzen hasi zianian benenua, hoitakuak asko azaldu zien. Ta barbuak'e, barbuak baiño ikeragarrik, e, harrapatzen genittun. Ta txerrientzako. Etxian txerria gendun eta astoporruak menditik eta. Geo hartzen genittun barbuak hoitakuak, ta Michelindik zea bidoia txapazko hoitakuak ekartzen genittun, berrehun litrokuak, ta han jatekua jarri ta. Grasa haundiya izaten baizun barbuak. Jateko ez zian onak, jateko ez. Guk jan itten genittun ba amorraiya, geo angulak'e harrapatzen genittun presan, han zeakin junda, sare ttiki batekin junda, eta geo beste batzuk etortzen zian "xabalua" deitzen geniyon guk, eta zian languaduan tip..., languaduak izango zian nik uste det. Tipo hoitakuak. Eta hoik harrapatzen genittun, hoik harrapatzeko tablak genezkan jarrik, dana iltziak goitik behera jarrita ta zasta! harrekin. Geonek ateatako, ezpatak bakarrik zian, bestela erreminta danak geonek itten genittun. Ta aingirak'e erreka zikintzen zanian, juten giñen eta jartzen gendun makilla, deitzen geniyon "errosariyua", ta errosariyua zan hari batian jostorratz batekin zizariak, zizarek bete dana. Txitxariak, e, txitxariak pasa ta pasa ta pasa ta bete. Ta ordun hua jartzen gendun makilla baten puntan lurra juaz. Baiña bihar zun ura, ur zikiña. Ta orduan aingirak tak! heldu eitten zion, ta gora ateatzen gendun ta guardasola eregia; tak!, guardasolea. Bestela aingira zailla zan harrapatzen, oso zailla zan aingira. Tenedoriakin, tenedoriakin harrapatzen genittun.

-Tenedoriakin?

-Bai, klaro. harria altxa ta tak! tenedoria. Azkar, bestela fiiitt, fuera.

-Zenbat teknika, ez.

-Bueno! Beste erremedioik ez zeon. Dana jateko, e! Ez pentsa beste gauzeako.

10. Puntapaxko erreka eta azalpen etimologikoak

- **Erref:** USU-002/015
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:20:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Puntapaxko errekan bainatzen ziren. Puntapax izenaren jatorria azaltzen du. Bainatzeko galtza zaharrak erabiltzen zituzten.

11. Goitibeheran ibiltzeko prestaketak

- **Erref:** USU-002/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria

Laburpena:

<p>Goitibeheran ibiltzen ziren, eta iltzeak zituenez, amak zakuekin egiten zizkien galtzak, horrela ez penarik emateko zulatzen baziren ere. Goitibeherak beraiek sortzen zituzten, materiala handik eta hemendik lortuta.</p>

Transkripzioa

-Geo ibiltzen giñan gu, jetxiera estazioa zan bastante fuertia ta goitibeheran. Ta, klao, goitibeherak iltziak-eta eukitzen zittuen, ta galtzak-eta ez puxkatzeko gue amak iten zizkiun galtzak azukre-zakua buelta eman, Kubatik etortzen zien azukre-zakuak zian zurik. Ordun gue attack, txoferra zan, baiño geo itten zun, fabrika montatu zun sagarduena beste lau lagunekin. Ta ordun sagardo goxua itteko azukria ekartzen zuen ta azukria ekartzen zan zaku txuritan eta ordun buelta eman ta harrekin eiten zizkigun galtzak. Puxkatuta're josi el siete ahal zan bezela ta segi aurea!
-Ta goitibeherak zuek egindakuak izango zien, ezta?
-Bai, bai, dana, dana. Rodamientuak-eta konsegitzen nittun Michelin-dik eta zeatikan eta geonek itten gendun dana. Egurra hartu, gastatu, jarri ta benga! Konkursua bezela gaiña, aber onena zenek zun. Goittikberik onena zenek zun.

12. Larunbat santuko trikimailuak

- **Erref:** USU-002/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:23:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Gabon eskean eta Santa Agaten ibiltzen ziren kantari. Larunbat santua ere egun garrantzitsua izaten zen: etxez etxe joaten ziren su berria banatzen. Egun hartan Urkamendin gosaria pezeta batean egoten zenez, lehenengo nahi izaten zuten hara iritsi. Su berria elizan pizten zen eta horregatik esaten zen bedeinkatuta zegoela.

Transkripzioa

-Gabon eskian edo ibiltzen ziñaten kantari?
-Bai, eta Santa Agedan'e bai. Eta bestia izaten zan gutzako oso garrantzitsua Larunbata Santuan, gabezko partez, oain gabez itten da, "lo lógico", ezta", ordun itten zan goizetik. Launbata goizian itten zan ya su berriya. Su berriya itten zanian ardagaiyak eukitzen genittun, ardagai bat, ezta, osua. Ardagaiya badakizu zer dan? Arbolai ateatzen zaizkan perretxiku tipuak hola. Haitzari ta haundik ateatzen dia. Hoik ardagaiya da. Ta ordun eamaten gendun bat txiki-txiki inda boltsan, pillan, baiño bestia sua piztuta. Ordun genittun basarrik ezagunak. Urkamendi aurrena jutun zanak izaten zun... Zenbat izaten zun... Pezta bat eta gosaiya uste det izaten zula. Jode, danak aber aurrena zein aillegetzen zan Urkamendia. Urkamendia Usurbildikan kaletikan egongo dia bi kilometro ta erdi edo hola. Korrika aurrena zein aillegetzen zan. Ta ordun batzuk itten zuen tranpa. Su berriyakin piztu biharian etxian piztu ta... Su berriya partitzea jutun giñen etxez etxe. Ta propiña ematen ziuten. Erriala ematen zunak asko. Hamar xentimo, "perro haundiya" esaten zana.
-Eta su berria partitzeko nun hartzen zuten beraiek?

-Gero etxian, ekonomikatan sua.
-Sutara bota?
-Hara bota ta ya bedeinkatuta geatzen zan (barreak). Hoik gauzak, e.
-Esaten zan zerbait su berria partitzen zanian? Bazan esaeran bat?
-Ezer, ezer ez. Eman itten zizuen. "Bai, ya izandu da". Mekauen la mar, beste lekura korri. Goiz guztiya korrika batetik bestea aurrena aillegetzen.
-Eta su hori nun pizten zan?
-Elizan.
-Elizan. Horregatik zan bedeinkatuta edo.
-Bai, bai, klaro. Apaizak bedeinkatzen zunian, hartaa elizan sartzen zanian bera errezatzea, piztu ta korri batea ta bestea. Ya kalkulatu "hi noa jungo haiz?" ta ba ni hara jungo nauk eta ni bestea jungo nauk eta. Hola ibiltzen giñan.
-Ta hori zenbat urtekin?
-Ttiki-ttikitatik. Bost urte, sei urte...

13. Santa Agate bezperako eskea

- **Erref:** USU-002/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:23:59. **Bukatu:** 00:25:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Santa Agate bezperan kalean ibiltzen ziren abesten. Orduko kanta abesten du.</p>

14. "Eva" fabrikaren ardura nola eraman izan duen

- **Erref:** USU-002/020
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

6 langileren ardura zuela hasi zen familiako negozioan lanean; 1964an "Eva" fabrika sortu zuen anaiarekin, eta jubilatuta zenean 50 langileko fabrika zen hura. Gehienbat Espainian saltzen zuten. Kalitatea ondo zaintzen zuten "Evan". Pasteurizatzeko egin beharrekoa azaltzen du.

15. Etxeko lanak eta animaliekiko harremana

- **Erref:** USU-002/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Umetan etxean laguntzen zuten. Baratzean ama bakarrik ibiltzen zen lanean. Juanito ahuntza zuten etxean; bele bati hizketan eta txistua jotzen erakutsi zioten.</p>

16. Izkin-usoa lapurretan

- **Erref:** USU-002/023
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Izkin-usoak lapurtu egiten zien, mahai gainean zerbait distiratsua ikusten bazuen. Etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta izkin-usuakin kontuz ibilli bihar gendun, zeatik egoten zan sukaldian. Gue sukaldia izaten zan erdiya mahiya han egoten zian lau neskak, lau arrebak. Ta bestian ya bat ttikitan hil zan, bestia gerran hil zan, ordun geatzen giñan beste lau gizon. Lau ta atta. Ta amak beti karboneran izkiñan jaten zun. Karbonera zun sukaldiak, karbonera, ta han izkiñan amona han; baiño bestiak partittuta. Geo muebliak izaten zian hoitakoak, eta han egoten zian platerak eta gauzak, haundi hoitakuak eta goiyan zeon zirrikittu bat. Ta izkin-usua han goiyan egoten zan. Ta deitzen geniyonian, nola izena zun? Bee izena bazun. Ta tak!, honea agertzen zan eta jaten ematen zion eta rak! gora jutten zan. Baiño uzten bazendun zeozer zillarrezkua edo brillantia, etorri ta tak" hartu ta gora eamaten zun. Mekauen, oaiñ e falta da! Eta eskaillerak hartu ta iyo ta, "ama hamen nun dakan". Bai, lapurtu itten du izkin-usuak hola brillantia ikusi ezkeo zeozer.

17. Etxearen egitura eta lan-banaketa

- **Erref:** USU-002/024
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Neskak eta mutilak mahai bereizietan esertzen ziren etxean. Etxeko lanbanaketa eta etxearen egitura nolakoa izaten azaltzen du.

18. Aitaren gidabaimena eta lanbideak

- **Erref:** USU-002/030
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:37:18. **Bukatu:** 00:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Bere aita izan zen gidabaimena atera zuen lehenengotarikoa. Txofer eta mekaniko lanetan ibiltzen zen, eta atzerrira joaten zen lan kontuak zirela eta.</p>

19. Anai-arreben zoria

- **Erref:** USU-002/032
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:38:34. **Bukatu:** 00:40:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Etxeko alabak etxean gelditu ziren lanean; semeak, ordea, etxetik kanpo aritu ziren lanean. Bi anaia nola hil ziren azaltzen du: bata bihotzekoak emanda, eta bestea gerran.

20. “Heil, Hitler” goserik ez pasatzeko

- **Erref:** USU-002/033
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:40:58. **Bukatu:** 00:43:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Anaiak “Heil, Hitler” esaten erakutsi zien. Afrikatik soldaduak zetozenean, esaldi hori esan eta gozokiak eta tabakoa botatzen zizkieten. Estraperloan aginagarrak ibiltzen ziren. Etxean ogia egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.</p>

21. 16 dolarerekin hasi lanean

- **Erref:** USU-002/034

- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:43:07. **Bukatu:** 00:45:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Aitak hasieran 16 dolaretan egiten zuen sagardoa. Sagardoa egiteko sagarrak nondik lortzen zituzten eta nora botatzen zituzten azaltzen du. Kamioia bazuten, baina zisternarik ez. Hasiera batean, dolareak ez ziren berenak eta lortzen zuten litro bakoitzeko ordaindu behar izaten zuten.</p>

22. Sagardoa egiteko prozesua lehen

- **Erref:** USU-002/035
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Lehen sagardoa egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Egurrezko kupel handiak zituzten beraiek.</p>

23. Sagardoa lantzeko prozesuan aldaketak

- **Erref:** USU-002/036
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:47:49. **Bukatu:** 00:50:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Sagardoa pasteurizatzen 80ko hamarkadan hasi ziren. Hasieran sagardoa barrikatan saltzen zen, naturala, gasik gabe; gerora gasa sartzen zioten denari. Sagardogintzako makinak nola joan diren aldatzen azaltzen du.</p>

24. Berrikuntzak sagardogintzan

- **Erref:** USU-002/037
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:50:43. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Merkatuak aginduta sartu izan dituzte berrikuntzak sagardoan: sagardoa gasifikatzea, sagardoa botilatan eta kortxoarekin saltzea, sagardo atxanpanatua botila txikitan saltzea, sagarrak lurrera bota eta kanaletan urarekin eramaten garbitzeko sistema berria erabiltzea...</p>

25. Hizkuntzak bere kabuz ikasitakoa eta laneko baldintzak

- **Erref:** USU-002/038
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:52:42. **Bukatu:** 00:57:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Frantzian, sagarrak garbitzeko sistema berriak ikasi zituen. Han zegoela, errusieraz hitz egin zuen errusiar batekin, eta hura asko poztu zen errusiera entzuteaz. Errusiera gaztetan hasi zen ikasten, baina gizon batek modu txarrean egin zion kritika eta alemana ikasten hasi zen. Bere kabuz ikasi izan ditu beti hizkuntzak. Alemanian, ahal zuenean, alemana ikasteko gaueko klasetara joaten zen. Lana dela eta, denbora asko eman behar izan du etxetik kanpo. Izan dituen autoak aipatzen ditu.

26. Mikel Urkiarekin musika-taldea osatu eta herriz herri musika jotzen

- **Erref:** USU-002/039
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:57:16. **Bukatu:** 00:59:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

40 urte zituela hasi zen gitarra jotzen. Mikel Urkiarekin batera musika-taldea sortu zuen, eta herriz herri ibiltzen ziren festetan musika jotzen. Beste musikari ezagun batzuekin ere tokatzen zitzairen jotzea zenbait festatan.

27. Musika-taldea sortzeko erabakia

- **Erref:** USU-002/040
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Usurbilen beti eduki izan dute abesteko zaletasuna, eta Aiako emakume baten abestiei esker hasi ziren talde gisa abesten. Musika emanaldietan adineko jendea kantuan jartzea gustatzen zaio.</p>

Hamaika andre gaixo
ikusten dittut nik
beren bizi moduaz
odoi asperturik
senarraren pardela
eraman eziñik
neskazaharrak ez dute
horrelako lanik.

Lalaralalala...

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

Ez gaude garai hontan
ezkongairik gabe,
ugari dittut baiñan
gustokorikan ez
Luis ta Ambrosio
Tomas eta Andres
ja, jai, gehiago ere
badabiltza galdez.

Lalaralalala...

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

- Joe, oso polita!
- Egiya kanta polita dala?
- Oso polita.
- Ez dakizu zahar guztiak nola... nola kantatzen duten.
- Eta hau zuek berreskuratu zenuten?
- Bai, bai, hau galdua zeon. Hau...
- Galdua zeon.
- Hau bai, hau gure kanta bezela azaltzen da. Nik guria dala esaten diyet.

30. `Erreguetan´ abestia

- **Erref:** USU-002/045
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:09:01. **Bukatu:** 01:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>`Erreguetan´ abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Erreguetan ari nintzala
hartu nuen albistea.
Ama zureak nahi ez duala
biok alkarganatzea.
Nolaz ez neukan oraindiokan
gauz hori erabakia,
berbertatikan asmo hartzen det
lekaimetan sartutzea.

Min-eriturik arkitzen danak
egin beharko negarra.
Nahiagatikan logratu ezin
desio nuen izarra.
Mundu hontatik eramango det
damutasun bat bakarra:
zu gabetanik nere bizitza
hemen igaro beharra.

Ez egin arren, Iñaziotxu,
horregatikan negarrik.
Mundu honetan ez dago, bada,
[egiterikan] nahi danik.
Oroitu zaite beste bat ere
badeguela oraindik,
goiz-gabetako erreguetan
ez naiz ahaztuko zugandik.

Zure izena badaukat eta
egin...

(Egon. Aiba diez! Korta, korta.)

Zure izena badaukat eta
ez zait sartuko besterik
Debekatutzen duten ezkerro
ezkondutzea lurrean,
saia gaitezen ahalegiñian
elkartutzeko zeruan.

Hau ez deala kantatu... Jesus! Urtiak ez deala kantatu hau, e!

31. Kanta "berde" bat

- **Erref:** USU-002/047
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Kanta "berde" bat abesten du.</p>

Transkripzioa

-Berde bat kantatuko dizut. 3R, e! 3R da hau.

Tturruku-ttuku-ttuku

Ez neri ukuttu,

Aita ganbaran da ta

Sentittuko gaitu.

Aita ganbaran eta

Ama sukaldian,

Neska-mutillak berriz

Eskailera azpian.

Neskak esaten dio

Azpitik ai-ai-ai!

Mutillak gaiñetikan

Isilik egon hai!

Kaliaren erdian

Nahi degun guztia

Han kunplittuko degu

Gure kutizia.

Tturruku-ttuku-ttuku

Ez neri ukuttu,

Aita ganbaran da ta

Sentittuko gaitu.

-Polita da hori ere.

-Berdia. Hori kantatuta parre eiten duen zarrak baakizu ze izandu dian gaztetan. Alproja earrak. Ta holaxe.

32. San Juan suaren inguruko pikeak eta Kalejarren historia

- **Erref:** USU-002/049
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:16:33. **Bukatu:** 01:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Kalexar auzoaren historiari buruz hitz egiten du. San Juan sua izaten zenean, norgehiagoka egoten zen zein auzotan su handiagoa egingo. Adi egon behar izaten zuten sua zaintzen, beste auzokoek trikimailurik erabil ez zezaten. San Juan suaren inguruan kantatzen ziren koplak kantatzen ditu.</p>

Transkripzioa

-San Juanetan-eta san Juan sua egiten zenuten?

-Bai. Ta gaiñea zelebria zan zergatikan ze beti izaten zan ze barriyok su haundiaua itten zun eta ordun gu izaten giñan Kalekuak, ta parian zeon bestaldian Kalexar, deitzen zaio. "Ciudad Belmonte". "Ciudad Belmonte" bere historia badu zergatikan kalia zeon jauntxo baten eskutan, Atxegatarren eskutan zeon. Eta ordun Elizalde deitzen zitzaion. Eta hua independizatzeke in zuten erregiak, Enrique IV uste det zala, Trastamara

batek eman zion titulo de villa "la ciudad Bemonte de Usurbil". "La ciudad Belmonte de Usurbil" izena zun. Eta oain guk beti Kalexar. Usurbillen zan leku bat "El robledal de París", antes que existiera París. Usurbillen zan hoi. Han juntatzen zien jauntxuak. Herriko zeak, jauntxua bat zan: Atxega, Atxegatarrak. Baiño herriko zarrak han juntatzen zian "en el robledal de París" erabakitasunak hartzea.

-Baiña hori noiz? Aspaldiko kontua, ezta?

-Bai. "In illo tempore". Eta ordun Kalexartarrekin itten gendun guk beti konpetentziya.

-Sua?

-Bai. Ta han bazan kontraio goorra, Bixentiko deitzen zan, oandik bizi da gizajua. Bastante elbarriya egon bihar du. Eta ordun zan, surik haundiña zeñek itten zun. Baiña hoi ez zan txarrena, Kalexartarrak etorri errekatik barrena ta igual guri su ematen ziuten garaiya baiño lehen.

-[...]

-Bai ba. Ta guardiyan egon bihar zan. Ezta muittu're suan ondon [...] zea, egur pillatetik eta. Ezta muittu're. Ta geo aber suik haundiña zenek itten zun. Ta...

1

Dioste salbe, ongi etorri
gabon jainkuak diyela,
legiarekin kunpli dezagun
aita san Juanen bezpera.

2

Han goien goien langetan
eperra dago kantetan,
Kalexarreko nagusi jaunak
kaka egin du galtzetan.

-Kalexarrekeri. Haik gugatikan. Ta hola aitzen giñan. "Arkakuxua dirudi" ta. Ja-ja.

-Eta hori ze kantatzen zan, suan inguruan?

-Suan inguruan, suan inguruan. Gaztiak aitzeko modun.

-Orduan gertu su bat...

-Bueno.

-Aitzeko moduan bazegon.

-"En linea recta" zenbat, hirurehun bat metro?, laurehun? Aitzen zuen, bai, aitzen zuen. Biharko. Biharko.

33. Usurbilgo koruko zuzendari izandakoa

- **Erref:** USU-002/051
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:20:35. **Bukatu:** 01:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Lehen dantza lotua debekatuta zegoen; bestela, kongregaziotik bidaltzen zituzten neskak. Joxe Mari luistarretako idazkaria izan zen, eta 17 urterekin Usurbilgo koruko zuzendari. Behin Parisera joan ziren kongresu batera abestera.

34. Dena bekatu zeneko garaia

- **Erref:** USU-002/052
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:22:54. **Bukatu:** 01:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

Misioak izaten zirenean, beldurgarria izaten zen dena. Lehen dena zen bekatu. Neskak eta mutilak ez ziren elkarrekin ibiltzen.

Transkripzioa

-Misiuak-eta egoten ziren Usurbillen?

-Bai, bai, honbre! Leiho danak jarri tela more kolorekoa ta dana illun-illun-illunian jarri ta. Bueno! Sermoiak eta misiuak eta, bueno, bueno!

-Sermoi bildurgarriak, ez?

-Bai, dana bildurra. Dana pekatua ta dana bildurra.

-Inperua ta...

-Dana, dana.

-Eta orduan zer zan pekatu?

-Galde zazu zer ez zan pekatu (barreak).

-Dana pekatu orduan, dana.

-Zan beste jangoiko bat, mekauben la puñeta. Ze parrek ingo zittun harrek goitikan hori ikusten zunian. "Ni ez nak hoi", esango zun, "ni ez nak hoi".

-Eta pentsatzen det zuek libreago ibiliko ziñatela emakumiak baiño.

-Bai. Guk ez gendun, ez giñan alkarrekin, gutxi ibiltzen giñan. Neska-mutillak ez giñan asko ibiltzen gure garaiyeen. Gu "por libre" beti.

-Pekatu zan eta.

-Bai ba. Honbre. Guk oilluak harrapatu ta geo aingirak harrapatu ta elizaa eaman eta... Bueno! Kastigatuta aldarea eaman han paretean jartzea ta. Ni bosterditan eta bost urte ta erdikin hasi nitzan monagillo seitako mezetan, e. Ta seitako meza lagundu eta geo estudiatzea zortzietako trena arte. Ttiki-ttikitatik.

35. Gerra ostean gosea pasatakoa

- **Erref:** USU-002/053
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:24:24. **Bukatu:** 01:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Anai-arrebak bihurriak ziren, eta aitak zigortu egiten zituen behar zenean. Gerra ostean gosea pasa zuten eta ahal zuten moduan lortzen zuten janaria. Susana etortzen zen Getariatik arraina saltzera, eta harekin tratua egiten zuten janaria trukatzeko. Arraina lehen beste era batera baloratzen zen.</p>

36. Mendira joateko zaletasun handia

- **Erref:** USU-002/054
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:27:18. **Bukatu:** 01:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendira asko joaten ziren. 51 aldiz joan izan da Arantzazura oinez Usurbildik. Inguruko mendietara ere arratsalde pasa joaten ziren bezperak bukatutakoan.

37. Erljioa oso presente eguneroko bizitzan

- **Erref:** USU-002/055
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:28:26. **Bukatu:** 01:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Gauero errezatzen zuten etxean arrosarioa. Erramu eta ur bedeinkatua beti edukitzen zuten etxean, edozer gertatuta ere eskura izateko. San Juanetan lizarra jartzen zen sarrerako atean. Bijilia Garizuman egiten zen. Pazkozko jauna hartzeko, txartela bota behar izaten zen, eta horrela kontrolatu egiten zen zein joaten zen mezara eta zein ez.</p>

38. Eliz mutilaren lanak

- **Erref:** USU-002/057
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:31:04. **Bukatu:** 01:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eliz mutil zela, meza latinez zenez, erantzunak jakin behar izaten zituzten buruz; sotana altxatzen zuten, ur-ardo ontziak prestatu...

39. Lehengo janzkera

- **Erref:** USU-002/059
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:32:24. **Bukatu:** 01:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

6 bat eliz mutil izaten ziren eta txandaka ibiltzen ziren beren artean. Jaiegunetan bakarrik joaten ziren eliz mutilaren jantziarekin. Abarkak erabiltzen zituzten normalean; eta geroago botak etorri ziren, zolan iltzeak zituztenak. Nolanahi ere, futbolean hanka hutsik ibiltzen ziren apretak ez hondatzeko. Artilezko txapelak erabiltzen zituen berak, baina jendea normalean txapelarekin ibiltzen zen. Baserritarrek brusa erabiltzen zuten. Emakumeek buruko zapia eta gona luzeak eramaten zituzten.

40. `Herriko festak´ kanta

- **Erref:** USU-002/061
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:36:38. **Bukatu:** 01:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Bestelako kanta
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>`Herriko festak´ kanta ezaguna da, Arrate Irratian sarri jartzen zuten. Kantatu egiten du. Euskal kantuen "hit paraden" lehenengo egon zen kanta hori.</p>

Transkripzioa

- `Herriko festak´... `Pello Joxepe´ igual ezagunagua da `Herriko festak´ baiño, ez?
- Bai? O `Herriko festak´? `Herriko festak´ ezaguna da, e! Jesus! Oain, oain... urtetan Arrateko zeak, radiyuak, jotzen zittun gure kanta eta bat `Herriko festak´ izaten zan beti.
- Nahi dezuna zuk.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Lau atso: hiru neskazahar,
bat alarguna, jarririk itzalian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen,
eta gaiñera tantuak kontaktzen.

Truk jota, Iñaxik txota,
Mariak txaldun, ta Errufinak hirua.
Mari Martin, zoratu al zain burua?
lauarekin hiruaren kiñua.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Neska egon hadi ixil-ixilkan
hik ez den ikusi nere kiñurikan!
Ttanttan bat edan ezkerro,
begiyak briz-briz, ezin egon ixilik
edan ezan, edan ezan gogotik,
katillua, katillua beterik.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

- Hau oso politta da kanta hau.
- Bai, bai, oso politta da.
- Honek atera zun aurreneko puestua. Uste det ziela hau eta `Erreguetan´, ta `Zirt-zart´ e bigarrena. Ordun bazan "un hit parade de la canción vasca".
- A bai, e?
- Bai, ta hor danak giñan, e! Lertxundi ta Lete ta danak giñan hor, e! Ta guriak atera zun.
- Eta nola erabakitzen zan hori, "hit parade" hori?
- Botuak. Jendiak botuak botatzen [...]. Bai.
- A bai? Ta hori irratian ala nola?
- Bai, bai, bai. Irrati... "Radio Loiola" zan ordun, uste det. Bai, Loiola uste det zala hor zeona en la calle Getaria, goien, Jesuita gaiñian zeon hua. `Radio Popular´, `Radio Popular de Loiola´ uste det izena zula ordun.
- Eta zuek radiorako ere kantatzen zenuten?
- Bai, bai. Radiyuan ta telebisiyuan ta... leku askotan. Leku askotan.

41. `Andre Madalen´ eta beste zenbait bertso

- **Erref:** USU-002/063
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:40:29. **Bukatu:** 01:43:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Umeei `Andre Madalen´; abesten zieten, lotarako edo dantzarako. Abestu egiten du. Doinu bera erabilita, beste bertso sorta bat abesten du (Txirritaren `Dantzariyaren premiyua´). </p>

Transkripzioa

- Loarazteko `Andre Madalen´. Gure kanta internazionala hoi da. Ume danairi, lotarako, `Andre Madalen´. Ta dantzako´re bai, `Andre Madalen´ beti.

- Eta nola da?

- Andre Madalen, andre Madalen,
laurden erdi bat oliyo,
aitak jornala ekarritzian,
amak pagatuko diyo,
amak pagatzen ez baldin badu,
aitak pagatuko diyo,
aitak pagatzen ez baldin badu,
hor konpon eta ariyo.

Gaiña hoi da... Aittu zazu hau:

Juan dan astian Saran izan naiz
Santa Kurutzak pasatzen,
lau neska gazte etorri ziran,
etziran asko lotsatzen;
mutur igarrak zituzten, baiña
ondo zekiten dantzatzen,
horrelakorik munduan zanik
ez nuen asko pentsatzen.

Titi gabeko mutur igar bat
presentatu zan lenbizi,
bi eskuaidi txistu emanda
plazan saltoka zan hasi;
nere begiyen aurrian ez det
bizkorragorik ikusi,
on-ustekuak baziran, baiña
hura zan hango nagusi.

Beste bi beltz-beltz ensaiatutzen
ibilituak jai ta aste,
beren ordua heldu danean
haik ere deittu dituzte;
duro erdi bana eman diyote,
geldittu dirade triste;
esana diye: «Ez dizkiñagu
pattarretako hainbeste!».

Laugarren honek ere bazuen
dantzatzeko jenyua,
esanaz: «Gora edari ona,
pakia ta uniyua!».
Zertarako dan erakutsi du
hark bere oponiyua;
titi gabeko mutur igarrak
eraman du premiyua.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com